

Larrialdi-planaren helburua lantokiko langileen osotasuna bermatzea da.

Larrialdi-plana behar bezala ezartzeko, garrantzitsua da langileak prestatzea eta informatzea.

Behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, garrantzitsua da aldian behin simulazioak egitea.

Nola jokatu istripua gertatuz gero

BABESTU:

Zure burua lehenengo, eta, ondoren, istripua izan duena.

ABISATU:

Obrako arduradunei eta **112 zenbakira**.

LAGUNDU:

- 1 Egiaztatu istripua izan duen pertsonak konortea duela eta arnasa hartzen duela.
- 2 Balioetsi istripua izan duenaren lesioak.
- 3 Eman lehen laguntzak, horretarako ezagutza egokia izanez gero soilik.

Gogoratu:
Ez mugitu istripua izan duen pertsona beharrezkoa ez bada!



Informazio gehiago:

1627/1997 Errege Dekretua, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxienezko xedapenak ezartzen dituena.

Eraikuntzaren sektoreko Hitzarmen kolektiboa.

393/2007 Errege Dekretua, larrialdi egoerak sorrarazi ahal dituzten jarduerak egiten dituzten bulego, establezimendu eta zentroetako autobabeserako oinarritzko araua ezartzen duena.

Eraikuntzaren sektorean larrialdi-neurriak ezartzeko prozedurei buruzko gida.

Deskargatu gida hemen



Sartu triptiko honetan eta deskargatu beste hizkuntza koofizial nahiz atzerriko batzuetan



www.lineaprevencion.com

Larrialdi-neurriak

ERAIKUNTZAKO OBRETAN



Obra mota, ingurunea, irisgarritasuna, eraikuntza-prozesuak eta abar kontuan hartuta, enpresaburuak izan daitezkeen larrialdi-egoerak aztertu behar ditu, eta beharrezko neurriak hartu behar ditu, gutxienez, lehen sorospenen, suteen aurkako borrokaren, ebakuazioaren eta langileen salbamenduaren arloetan. Horretarako, neurri horiek praktikan jartzeaz arduratuko diren langileak izendatu behar ditu.

Obretan, beste edozein lantokitan bezala, gerta daitezkeen larrialdi-egoerak aztertu behar dira, eta horietarako jarduketa-planak ezarri.

HAUEK DIRA LARRIALDI OHIKOENAK OBRETAN:

- **Lan-istripuak:** altuerako lanetan (zintrak, aldamiok, trapak, lan-plataformak, etab.), linea elektrikoetatik gertu egiten diren lanetan, produktu kimikoak erabili eta manipulatzeko lanetan, espazio itxietako lanetan, etab.
- **Suteak:** makinaren jardun-eremuetan, etxoletan, soldadura-lanetan, etab.
- **Leherketak:** produktu erregai sukoiak biltegitratzen diren eremuetan.

Larrialdiko neurriei buruzko informazioa dagokion laneko segurtasun- eta osasun-planean garatu behar da.

Larrialdi-planean egiten diren aldaketa guztiak eragindako langileei jakinarazi behar zaizkie, gutxienez.

Larrialdi-eta ebakuazio-planak HONAKO HAUEK JASO BEHAR DITU:

- Obra barruan gerta daitezkeen **larrialdi-egoerak**.
- Egoera horiei aurre egiteko beharrezkoak diren **giza baliabideak eta baliabide materialak**.
- Larrialdi-egoerei erantzuteko eta egoera horiek kontrolatzeko **jarduera-protokoloak**.
- Larrialdietako **zerbitzu publikoetarako** aurreikusitako **sarbideak**.

Aldian-aldian berrikusi beharko da, eta aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean, hala nola obraren bilakaeran, jarduera berriak hasterakoan, langileak lanean hastean, istripuen ondoren, etab.

Obra larrialdi-neurri nagusiak



LEHEN SOROSPENAK:

- Enpresaburuak lehen sorospenak bermatu behar ditu, behar adinako prestakuntza duten langileekin.
- 50 langile baino gehiago dituzten obretan, lehen sorospenetarako lokalak egongo dira.
- Lehen sorospenetarako eta botikinetarako lokalak seinalizatuta egon behar dute.
- Obra linealak botikin eramangarriz hornituko dira, puntu estrategikoetan jarriz.



SUTEEN AURKAKO BORROKA:

- Suteen aurka borrokatzeko gailu nahikoak eta egokiak eduki beharko dira.
- Garrantzitsua da koadro elektrikoetatik gertu CO₂ --ko itzalgailu bat egotea.



LARRIALDIKO BIDEAK ETA IRTEERAK:

- Ebakuazio-bideak eta irteerak ez dute buxadurarik izan behar, eta eremu seguruetara eraman behar dute.
- Obraren erabileraren, ekipamenduen eta dimentsioen arabera izango dira irteeren kopurua, banaketa eta dimentsioak.
- 485/97 Errege Dekretuaren arabera seinalatzatu beharko dira.